



Gernika-Lumoko Tokiko Gobernu Batzarrak azaroaren 27an hartutako erabakiaren laburpena, euskara ikasi eta euskaraz trebatzeko Gernika-Lumon erroldatutakoei dirulaguntzak emateko 2024-2025 ikasturterako deialdiari buruzkoa.

EUSKARA IKASI ETA EUSKARAZ TREBATZEKO GERNIKA-LUMON ERROLDATUTAKOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2024-2025 IKASTURTERAKO DEIALDIA.

1. Onuradunak

Gernika-Lumon erroldatutako 16 urtetik gorakoak, eta ezinbestekoa izango da eskatzaileek deialdiaren helburuarekin bat egin eta finkaturiko baldintzak betetzea.

2. Helburua

Euskara ikasi eta euskaraz trebatzea sustatzea Eusko Jaurlaritzak horretarako homologatutako zentro publiko zein pribatuetan, 16 urtetik gorako pertsonen ikastaroak egiteko dirulaguntzak eskainiz.

3. Oinarri arautzaileak

Oinarri arautzaileak deialdian bertan jasotzen dira, Gernika-Lumoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren azaroaren 27ko erabakiaren bidez onartu bezala. Deialdiaren testua, oinarriak jasotzen dituen, osorik argitaratu da DNDBn.

4. Zenbatekoa

Dirulaguntza horietarako 6.000 euroko partida aurreikusi da: 577,35 euro aurreikusi dira 2024ko aurrekontuaren bizkar, eta 2025 urtean aurkeztu daitezen eskabideetarako bidezko gastuaren onarpena egingo da 2025eko aurrekontuaren kargura.

5. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia indarrean jarriko da honako laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, 2025eko irailaren azkenera arte.

Gernika-Lumon, 2024ko azaroaren 27an.

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta / Gernika-Lumoko Alkatea

